





Xabier Paya



Borgesek dio literaturaren historia, finean, metafora gutxi batzuen historia dela, eta zenbait nabarmentzen ditu: ibaia denbora da, bizitza amets, begiak izar dira, emakumeak lore... beraz, agian errealitate osoa ere metafora gutxi batzuen bitartez azal liteke. Hala balitz, zein lirateke metafora horiek?

Kode kulturalak errealitate biren arteko mugak dira, arantzelak ezartzen dituzten aduanak. Zulo karratuan sartzen den pieza karratua ez da zulo borobilean sartzen, eta moldatu ezean, *zulo-borobildarrek* ezingo dute pieza karratuaren mezua jaso. Kasu horretan, ordea, agian piezak ez du zentzurik izango karratutasunik gabe. Eta zenbat pieza daude ideien merkatuan? Auskalo, galdera horren erantzuna merkatuak berak ere ez daki eta. Kasu honetan, pieza bat hautatuko dut aztergai, merkatu jakin batean: metafora bertsoen salerosketan.

Bertsoa, metafora eta itzulpena

Metafora, ustez literaturaren eta plazer estetikoaren baliabide nagusia, izatez hizkuntzaren barneratze-prozesuko tresna baliotsua; bestela translazioa, erreala dena irudikatua edo iradokia denarekin identifikatzen duen algoritmo analogikoa. Bertsolaritzan eta oro har ahozko tradizio osoan, metaforak funtzio ugari izan ditu eta oso presente egon izan da beti: Maritxuk eta Bartolok ardoa besterik ez ote zuten nahi? Eperrak luma galtzeagatik noiztik egiten dira kantua? Itzultzaile batek ezin hobeto ulertu behar du itzuli beharreko testuaren mamia eta helburua, eta metaforaren kasuan, lehenbizi euskaratik euskarako itzulpena egin beharko du, ulermenaren mesederako baino ez bada ere. Eta batik bat, argi izan beharko ditu metafora mota eta helburua. Bertsoan erabiltzen diren metaforak aztertzeke, informazio-iturri gisa Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak argitaratutako *Bapatean 2006* antologiak baliatuko naiz. 2006 urteko uzta onena biltzen duen liburu horretatik aterako ditut azterketarako lagin gehienak.

Zergatik metafora?

Lehenago esan bezala, metafora erreala dena irudikatua edo iradokia denarekin identifikatzen duen algoritmo analogikoa da. Ez da konparazioa, identifikazioa baizik. Nori ez zaizkio ezagunak egiten neska ederraren ahoko perla (eta ez nabil *piercingez*, jakina)? Bada, metaforak elementu erreala eta iradokia agertzen baditu, metafora hori oinarritzkoa izango da, *in praesentia* motakoa: hortaz, neska ederrak perlazko hortzak izango ditu, perla soilak baino. Aldiz, metaforak elementu iradokia (edo metaforikoa) baino ez duenean aipatzen, metafora hori purua izango da: kasu horretan, neska ederrak ez du hortzik izango eta dena izango da perla. Esan beharrik ez dago askoz errazago itzultzen direla oinarritzko metaforak puruak baino, itzultzaileak informazio gehiago baitu.

Metafora bat itzultzea erraza edo zaila izan baliteke, lana dezente konplikatzeko da kantitatearen eta kalitatearen arabera. Kantitateari dagokionez, testu batek, edo gure kasuan bertso edo bertso-aldi batek, metafora ugari biltzen baditu, lehenbizi honetaz jabetu beharko dugu: metafora solte pila da ala alegoria? Alegoria metafora pilaketa da, metafora guztiak elkarri lotuta daudela. Horrek izugarri korapilatzen du itzultzailearen lana.

Zenbat metafora?

Kalitateari dagokionez, sailkapena konplexuagoa da. Metaforaren metafora hizkuntza bera izan liteke sailkapenen kasuan: ez dakigu oso ondo nola erabiltzen dugun, nekez hasiko ginatke ezagutzen ditugun sailkapena egiten, baina etengabe erabiltzen ditugu. Alabaina, aditu askok metaforen sailkapena behin betiko ezarri nahi izan du, eztabaidarako bide emankorra eratuz. Artikulu honetan ez dut hautsak harrotzeko inolako asmorik; hortaz, aditu askoren hondar aleak biltzen saiatuko naiz.

Orain arte metaforei buruz esandakoak bide erraza uzten dio itzultzaileari. Metafora pertsonalak, ordea, bidea nahi baino gehiago zailduko du. Metafora pertsonala edo sinboloa testuaren egilearen errealitatean kokatzen dena da. Bertsoen kasuan, egilearen errealitatea haren testuinguruak eta ingurutestuak osatuko dute, hau da, bertsoaren entzuleek, lekuak, uneak, egoerak eta bertsoaren gaiak berak. Erich Frommen arabera, hizkuntza sinbolikoa gure adimena islatzen duen mintzaira da eta hizkuntza sinboliko horretan, kanpoko mundua barruko munduaren sinboloa da. Sinbolistak hiru sinbolo mota bereizten ditu:

Sinbolo konbentzionala: eguneroko hizkuntzan erabiltzen dugun sinbolo mota da. Zein da mahai hitzaren eta mahaiaren arteko lotura? Lotura hori konbentzionala da: objektu horri horrela deitzeko askoren adostasuna behar izan da. *Sinbolo akzidentala*: izaera pertsonaleko asoziazioa da, inorekin partitu ezin dena. Parisera joan eta gaizki pasatu baldin bazenuen, Paris gaizki pasatzearekin erlazioatuko duzu, baina ez da inolako erlazio sakonik izango sinboloaren eta errealitatearen artean. Sinbologia horrek hartzailearen eragina alda dezake, Parisi buruzko bertso erromantikoak irakurri arren, gaizki pasatu duenak sinbolo akzidentalak ikus baititzake. *Sinbolo unibertsala*: sinboloaren eta errealitatearen artean erlazio sakona duen lotura da. Konbentzionalaren berdina da adostasunari dagokionez, baina adostasun hori erlazioak eratu du, ez taldearen erabakiak. Suak boterea eta energia esan nahi du, aldatu eta mantendu egiten dena aldi berean, suntsitzeko gaitasuna daukan indarra. Sua sinbolo gisa erabiltzen dugunean, deskribatzen dugun errealitateari zentzu hori ematen diogu. Horren adibide da Joxe Agirrek 2006ko Bertso Egunean botatako hasiera hau: «Nahiz berotasun handirik ez zu(e)n /

gure fedearen suak / garai haietan modan genitu(e)n / eleizak (e)ta errezuak». Metafora *in praesentia* horretan, fedea sua bada (ez sua bezalakoa), fede hori piztu eta itzali ahal izango da, besteak beste.

Frommen arabera, sinbolo unibertsalen multzoa gizakien arrazak sortu duen hizkuntza komun bakarra da. Gizateriaren oinarrizko ezaugarriak betetzen dituen gizakia gai da propietate komunetan oinarritzen den hizkuntza sinboliko hori erabiltzeko eta ulertzeko. Hizkuntza sinboliko horren baitan, Curtiusek, antzinate klasikoan oinarriturik, bost metafora multzo egiten ditu honako bost gaien arabera: nautika, familia, elikadura, gorputza eta antzerkia.

Curtiusen sailkapenak zaharra badirudi ere, aztertutako laginean mota guztien adibideak ageri dira. Neronek osatu nuen nautikan oinarritutako metafora Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, Bizkaiko finalean amari eskainitako bertsoaz kantari: «Ta aitak Brujas aldetik / eukon bere karabela; / artean olatu hartan ni / bere bigarren batela...» Petroliontziko itsasgizona izan arren, aita karabela bihurtuz gero, bi batela zeuzkan Bizkaiko finalean, anaia eta ni, eta ni bigarrena naiz semeetan. Familiari dagokionez, Unai Iturriagak 2006ko otsailaren 17an Legazpin kantatutako bertso baten bukaera dakart eredu: «Jakin gabe ezin baikenuen / segi gure ibilia; / ia zer moduz dagoen gure / Legazpiko familia». Iturriagak ez du seniderik Legazpin, baina lau urtez saio berera deitu ondoren, etxeko sentitzen zen legazpiarren artean; familiaren gertutasuna eta maitasuna islatu nahi zuen entzuleengan. Elikaduraren sinboloak oso ohikoak izaten dira bertsoetan, justizia egarriarekin lotzen bada askotan, bertsozaleei «gosea» egozten zaielako hainbat agurretan. Gorputzaren kasuan, Unai Iturriagaren lehengo saio berera jo nahi nuke, Maialen Lujanbiorekin batera egindako libreko saioan aurrera egin ahala, gaiak hona eraman baitzuen durangarraren azken puntu pare bat: «baina bi burmuin ditu(e)n neska bat / gaur (e)ta hemen inprobisatzen... / nik ere bi buru dauzkat baina / behekoak ez du pentsatzen». Kasu honetan, gorputz atal batek beste bat ordezkutzen du, baina «botilaren ipurdiak» edo «lepoak» sortzen duten prozesu bera betetzen du. Curtiusen sailkapenarekin bukatzeko, antzerkiaren aipamena Aitor Mendiluzek Durangoko saio batean kantatutako hasiera honek dakar: «Nire bost organoak /eskuen titere / aukeratu beharko / zein dedan mesede...» Bertsolariak sarritan konparatzen du bere burua titere, titiritero eta komediante (Iparragirre kasurako) gisakoekin.

Zertarako metafora?

Gricek ezarritako teorien arabera, komunikazio-ekintza batean, mezuaren hartzaileak espero du igorleak ahalik eta zorrotzen, argien eta azkarren hitz egingo diola, eta igorleak espero du hartzaileak horren berri izatea. Metaforaren kasuan, igorleak Kualitatearen araua hausten du («saiatu zeure ekarpena benetakoa izan dadin; ez esan ezer gezurra dela uste baduzu; ez esan ezer egiaztapen egokirik gabe»), hau da, esan nahi duena zuzen esan beharrean birformulatu egiten du. Horren helburuak, hau da, metaforarenak, hauek izan daitezke:

Metafora edergarria: formari gutxienez edukiaren adinako garrantzia emanik, plazer erretoriko-estetikoa bilatzen duen birformulazioa da. Xabier Silveirak Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean eskainitako azken agur honek ondo azaltzen du hori: «Printzesa bati sarritan bihotzez / erran izan diodana; / zarela mundu honetan gehien / gehien maitatzen dudana; / zarela nere bertsoen oina / nire bizitzako dama; /zarela inoiz gainetik kendu / ezin izango den zama; / aitarena dut izena eta / zurea nahi dut izana. / Eman gabeko musuen partez / txapela zuretzat ama». *Metafora pedagogikoa:* eduki berriak azaltzeko edo zailak errazteko, konparaziotik hurbil gelditzen den alegoria da. Mitologia eta alegia kontuetan sarritan agertzen da. Argi dago pedagogikoak izan lezakeela edergarritik ere, Sebastian Lizasok Zestoan Santa Ageda bezperan Andoni Egañari Uztapideri buruz esan ziona ikusita: «Txapelen mailan zuk hautsi dezu / hark zuen kategoria; / zuk autopista bihurtu dezu / hark egin zuen bidia». *Metafora eufemistikoa:* Ezin aipatu daitezkeen edo aipatu nahi ez diren tabu moralak, sozialak, erlijiosoak edo sexualak saihesteko birformulazio mota da. Herri literatura, esaera zahar, esamolde eta kantetan oso agerikoak dira. Sexua etengabeko erreferentzia da bertso-saioetan, Miren Amurizak Julen Zelaietari botatakoa, esaterako: «nahita be kamioian / gura neuke ekin / ta gero frenazorik / ezingo da egin». Neskak, jakina, ez zeukan inolako asmorik kamioiaren motorra pizteko. *Metafora fosildua:* Garai batean metafora izan eta egun izaera metaforikoa galdu duena da. Ordenagailuaren sagua aipatzean, dagoeneko inork ez du karraskaririk irudikatzen. Metafora fosilduak ez dira metaforatzat jotzen itzultzerakoan, zuzeneko baliokidetzeta edo egokitzapena bilatzen baitaie, ez bada mailegua.

Nola itzuli metafora?

Bertsolaritza komunikazio errimatua, neurtua eta kantatua den aldetik, metaforaren itzulpenak ez dauka zailtasun berezirik. Metafora unibertsalak diren kasuetan, itzulpena beti izango da posiblea. Sinboloen kasuan, itzultzaileak kontuan izan beharko du egilearen metaforak ez duela metafora konbentzionalik urratzen xede hizkuntzan, sinbolo akzidentalik sorrarazi ez dezan; hau da, azeri emearen sinbolo konbentzionalak oso ezberdinak dira euskaraz eta gaztelaniaz. Curtiusen sailkapenari dagokionez, osoena ez den arren, esango nuke orokorrean itzultzaileak saiatu egin behar duela posible den neurrian metaforan iradokitzen den elementuaren arloa edo esparru semantikoa mantentzen; tabu sexuala autoaren terminologiak ordezkatzen badu euskaraz, hala izan dadila ingelesez ere. Azkenik, metaforaren helburua mantentzea funtsezkoa da: hizkuntza batean pedagogikoa denak ezin du bestean soilik edergarri izan. Hemendik aurrera, ohar txiki bat baino ez nuke gehituko: bertsoak aldi berean interpretatuz gero, dena da zilegi; lana denboraz hartuz gero, itzultzaileak berak erabakiko du zer-nolako zorrotasunaz jokatu. Lehenago ere konparazio eta parafraasi bidez itzuli izan da metafora asko. Gainera, kontrabandoan, helburua merkantzia alde batetik bestera pasatzea denean, ia dena da zilegi. ♦

